

# IKERLAN KULTURAL LATINOAMERIKARREN EKARPEN TEORIKOAK

**Genara Pulido Tirado**

**Doktorea**

*Jaeneko Unibertsitatea*

**Aipatzeko gomendioa** || PULIDO, Genara (2010): "Ikerlan kultural latinoamerikarren ekarpen teorikoak" [artikulua linean], 452oF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria, 3, 53-69, [Kontsulta data: uu/hh/ee], < <http://www.452f.com/index.php/eu/genara-pulido.html> >.

**Ilustrazioa** || Nadia Sanmartín.

**Itzulpena** || Judith Caballero

**Artikulua** || Jasota: 2010/03/31 | Komite zientifikoak onartuta: 2010/ 04/20 | Argitaratuta: 2010/07

**Lizentzia** || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkatarizarako - lan eratorririk gabe.



**Laburpena** || Ikerlan kultural latinoamerikarrak ikerlan kultural britainiar eta iparamerikarren eredu enpen sortu dira, baina ikerlan kritiko, historiografiko eta teorikoen tradizio luzea dute oinarritzat, aldi berean, errealitate kultural desberdin eta oso konplexua dute. Bi ezaugarri horiek berezko espezifikotasuna ematen die ikerlanei. Artikulu hau, norbere errealitateari buruz teorizatze beharretik sortutako Latinoamerikako espazio zabalean azaldutako teoriari zuzenduta dago.

**Gako-hitzak** || Ikerlan kultural latinoamerikarrak | Transkulturazioa | Literatura-sistemak | Hibridotasuna | Migrazioa | Diaspora.

**Abstract** || Latin-American Cultural Studies arise under the Britain and North-American model, but as substratum they enclose an extensive tradition of critical, historiographic and technical studies on culture, as well as a different and very complex cultural reality, which provide its own specificity. I dedicate this article to formulated theories in the vast space of Latin America that arise from the necessity to theorize its own reality.

**Key-words** || Latin-American Cultural Studies | Transculturation | Literary System | Hybridity | Migrancy | Diaspora.

---

Berezko teoria kultural eta literarioa aurkitzeko bide luzearen ondoren – (beste nonbait ikertu nuen bezala (Pulido Torado, 2009) – kulturologoak, literaturaren kritikari eta teorikoekin batera, herrialde desberdinetan funtsezko kontzeptuak proposatu dituzte, Latinoamerika eta Karibeko kultura eta literaturen errealitate konplexua ulertzea posible egiten duten adierazpena sortuz. Ondorengo orrialdeetan, era sintetiko batean, besteak beste, transkulturazioaren, sistema literarioaren/literarioen, hibridotasuna edo hibridazioaren, heterogeneotasunaren, osotasun kontraesankorraren, mestizajearen eta migrazioaren oinarriko kontzeptuak azaltzeko asmoa dut, izan ere, hauek izan baitira nire iritziz berariaz latinoamerikarrak diren teoria literario eta kulturologikoak sortzea posible egin dutenak eta, honetaz gain, literatura konparatzailearen esparruan duten interesa argia da.

«Transkulturazio» kontzeptua 1940ean argitaratutako *Contrapunteo cubano del tabaco y del azúcar* liburuan azaldu zen lehen aldiz. Fernando Ortiz, antropologo eta kulturaren filosofo bilakatutako legelaria, XX. mendeko 30ko eta 40ko hamarkadako kubatar kulturaren mundu aberatsaren kide izan zen eta 1936an, Alejo Carpentier eta Nicolás Guillénekin batera, Ikerketa Afrokubatarren Elkarte sortu zuen. Ortiz iruzkinduz, Bronislaw Malinowski, ideia defenatzaile sutsua, kubatar antropologoaren obraren sarreran, honela definitzen du:

Transculturación [...] es un proceso en el cual emerge una nueva realidad, compuesta y compleja; una realidad que no es una aglomeración mecánica de caracteres, ni siquiera un mosaico, sino un fenómeno nuevo, original e independiente. Para describir tal proceso, el vocablo de raíces latinas transculturación proporciona un término que no contiene la implicación de una cierta cultura hacia la cual tiene que tender la otra, sino una transición entre dos culturas, ambas activas, ambas contribuyentes con sendos aportes, y ambas cooperantes al advenimiento de una nueva realidad de civilización (Malinowski, 1940: XII).

Fernando Ortizek tesi hau azaldu zuenerako, hamarkadak zeramatzen kubatar herri-kulturaren ikertzaile eta historialari gisa lan egiten. Tesi honetara iristeko oinarria, Amerikan bi mende baino zertxobait gehiagotan gertatutako gizarte aldaketen garrantziaren balorazioan datza; 1500 eta 1700 bitartean eta 1850 eta 1950 bitartean errepikatuko direnak. 1925ean José Vasconcelosek *La raza cósmica*-ko orrialdeetatik etorkizunera begira nabarmendu zuena Ortizek dimentsio historikoan ikertu zuen, herri unibertsal baten funtsezko berritasuna, mexikarrak esan bezala, Amerikan XVI. mendetik aurrera egindako ekintza transkulturatzaile apartekoan oinarrituta zegoela zen. Ortizen iritziz:

---

Entendemos que el vocablo «transculturación» expresa mejor las diferentes fases del proceso transitivo de una cultura a otra, porque éste no consiste solamente en adquirir una distinta cultura, que es lo que en rigor indica la voz angloamericana «aculturation», sino que el proceso implica también necesariamente la pérdida o desarraigo de una cultura precedente, lo que pudiera decirse una parcial «desculturación», y además, significa la consiguiente creación de nuevos fenómenos culturales que pudieran denominarse «neoculturación» [...] En todo abrazo de culturas sucede lo que en la cópula genética de los individuos: la criatura siempre tiene algo de ambos progenitores, pero también siempre es distinta de cada uno de los dos. En conjunto, el proceso es una «transculturación», y este vocablo comprende todas las fases de su parábola (Ortiz, 1940: 83).

Fernando Ortizen transkulturazio kontzeptuak harrera ona izan zuen Latinoamerikan eta bere arrastoa obra eta autore anitzetan aurki dezakegu, Félix Schwartzmann txiletarraren *El sentimiento de lo humano en América*-tik hasita (1950-1953), Ángel Rama uruguaitarreraino, edo berrikiagoa, baita Román de la Campa kubatar-estatubatuarrena ere. Hala eta guztiz ere, kontzeptuak beharbada ez du oraindik daukan garrantzia eskuratu, eta bere irudikapen potentziala ez da behar bezala aprobetxatu, nahiz eta ideiarekin antzeko garapen bat egin duten Darcy Ribeiro eta Sergio Buarque de Holanda brasildarrek, zehaztapen bera erabili gabe.

Hala ere, azken urtetako kulturen arteko eztabaidaren aurrean, Ortizek garatutako kontzeptuak jadanekotasun handia berreskuratu du. Kulturen arteko gerren iragarpenen aurrean, edo isolatuta eta aurkakotasunez bizi diren esparru kulturalak ghetto bilakatu nahi dituzten eredu sozialen aurrean, transkulturazioa kultura artekotasanarekiko bestelako erantzun gisa agertzen da.

Kontzeptu hau era garrantzitsu batean zabaldu da. Ángel Ramak «transkulturazioa»ren ideia bere egin zuen eta hura garatzen hasi zen 1974ko «Los procesos de transculturación en la narrativa latinoamericana» izeneko artikuluan. Hemen, transkulturalizazio narratiboa, norbere kulturaren lorpenieustenzioner regionalismoaren alternatiba modura ulertzen zuen, honek edozein ekarpen kanpotar berriri eta abangoardismoari uko egiten dio, bere ustez, ahulezia kulturalaz ezaugarritzen delako.

Aukera hauen aurrean, transkulturazio narratiboak, Ramaren arabera, “plastikotasun kultural” bati esker jarduten du, tradizioak eta berritasunak bateratzea ahalbidetzen duena: norbere egitura kulturala berrantolatu, kanpotik datozen elementu berriak sartuz, «apelando a nuevas focalizaciones dentro de su herencia» (1974:208). Autoreak transkulturazioaren narratzaile bezala jarritako adibideak hauek ziren: José María Arguedas, Juan Rulfo, J. Guimarães Rosa eta G.

García Márquez.

Hainbat urte geroago, 1982an, Ramak 1974eko bere artikulua zabaldu egin zuen eta urte bereko eta zerbait beranduagoko beste testuak gehitu zizkion, eta beste batzuk idatzi zituen liburuaren azken zatirako, honela *Transculturación narrativa en América Latina* liburukia osatuz (1982). Bertan, Ortizen hasiera bateko transkulturazio kontzeptua aipatzen da, zuzenketa batzuekin. Bere ikuspegia Ramari «geometrikoa hiru unetan» iruditu zitzaion: «kulturazioaren partzial»ean, kanpoko kulturatik etorritako ekarpenetan eta, azkenik, jatorrizko kulturatik bizirauten duten elementuak eta kanpotik datozenak erabiltzean egiten den berreskurapen esfortzuan. Bere iritziz, diseinu honekin ez ziren «plastikotasun kulturala»ren ezaugarri diren hautakortasun eta asmatze irizpideak behar bezala adierazten. Hautakortasunari dagokionez, ez da kultura kanpotarrari aplikatzen soilik, baita norbere kulturari ere. Egiatan, transkulturazioan burutzen diren jarduera nagusiak lau izango liriteke: galerak, hautaketak, berraurkikuntzak eta ekarpenak. «Estas cuatro operaciones son concomitantes y se resuelven todas dentro de una reconstrucción general del sistema cultural, que es la función creadora más alta que se cumple en un proceso transculturante», azaltzen du Ramak (*idem*). Ondoren, jarduera hauek literaturari aplikatzen zaizkien funtsezko hiru kategorietan nola barneratzen diren azaltzen du autoreak: hizkuntza, egitura literarioa eta mundu-ikuskerak. Lehenago, 1974an, Ramak gizarte-sistemaren ondoan sistema literarioa dagoela eta hau hiru mailatan azter daitekeela azaldu zuen: diskurtso linguistikoa, sistema literarioa eta «irudikari soziala».

Liburuaren bigarren eta hirugarren zatian, kritikariak Peruko hego-andetar lurraldean eta José María Arguedasen *Los ríos profundos*-en (1958) oinarritzen du bere analisisa. Era honetan, lurralde hura, mestizoaren kategoria eta adimen mitikoaren arloak aipatzen ditu; azkenean, Arguedasek nobela hartan espainiar hizkuntza nola birsortu zuen azaltzen du, sintaxi kitxua proposatzeko asmoz, egitura literario bat sortu zuen bi narratzaile nagusirekin eta bi erregistro linguistiko berezkoekin: historia eta mitoa eta, azkenik, agerian utzi zituen andetar munduaren koherentzia eta edertasuna eta bere iritzi politikoak azaldu zituen, bere sozialismoarekiko atxikimendua.

Transkulturazioaren kontzeptuak balio-aniztasuna eta aberastasuna izan arren, ez da kritiketat libratu. Besteak beste, Antonio Cornejo Polarrek transkulturazioaren kontzeptua kritikatu zuen 1994ko bere «Mestizaje, transculturación, heterogeneidad» lanean. Bertan «mestizaje» kontzeptuak bere azalpen ahalmena galdu zuela adierazi zuen eta bere buruari galdetzen zion «transkulturazioa» ez ote zen hura ordezkatzeko erabilitako oinarri epistemologikoa zuen gailu teorikoa. Honen aurka azaldu zen, transkulturazioaren kontzeptuak

bere ustez betetzen ez zen sintesia suposatzen zuelako; gainera, sintesi hau egiteko kultura hegemonikoaren esparrua aukeratu zelako eta arrazoi horregatik, literatura ilustratuaren sisteman eragina izan ez zuten diskurtsoak alde batera uzten zirelako. Horregatik guztiarengatik, heterogeneotasun literarioaren bere kontzeptua hobeagoa zela uste zuen.

Urte bat geroago, 1995an, Friedhelm Schmidt-ek Ramaren «transkulturazio narratiboa»ren kontzeptuari bere kritika azaldu zion «¿Literaturas heterogéneas o literatura de la transculturación?» izeneko bere artikuluan. Schmidt-ek egindako iruzkin nagusia, Ramak, dependentziaren teoriarekin bat etorrita, kultura latinoamerikarra «kultura bakar heterogeneoa» kontsideratzen zuen eta ondorioz, transkulturazioaren literaturak indartutako sistema literario bakar bat zuela bertan:

Mediante la transculturación narrativa los materiales de la literatura regionalista son integrados en el discurso superior de la modernidad cultural. En este sentido, expresa [Rama] su opinión de que la «literatura de la región de América que excluye a los países de la colonización anglosajona no puede definirse sino como mestiza» [...]. La unidad cultural, que es el resultado de la dependencia de América Latina, se refleja en el discurso homogeneizante de su literatura, que es uno y el mismo en todos sus países (Schmidt, 1995: 14).

Schmidten iritzi Antonio Cornejo Polaren proposamena askoz ere hobe da, besteak beste, kritikari perutarrak herrialde bakoitzean sistema literario anitz daudela uste duelako: jaso, herri-literatura eta bertako hizkuntzetan egindako literatura.

Beste oinarritzko kontzeptuetako bat hibridotasuna edo hibridazioa da. Néstor García Canclín hibridazioari buruzko bere kontzeptua azaltzen du *Culturas híbridas. Estrategias para entrar y salir de la modernidad*-en (1989). Obra honetan, merkatu kapitalista logikaren barnean dauden ondasun sinbolikoen menpe dauden ekoizpen eta kontsumoen zirkuitu berriak kontuan hartzen dituen ikuspegi batetik, eta globalizazio ekonomikoaren esparruan, autoreak «hibridazio kulturala»ren kontzeptua garatu zuen, forma zehatz batzuk praktika tradizioaletatik baztertzen diren era desberdinak bezala ulertuta, zeinak forma eta praktika berrietan berrantolatzen diren; egoera hau García Canclínren liburuan herrikoa/folklorikoa denarekin bateratuta (jendetsua denarekin lotuta) agertzen dira, hibridazioa bere ezaugarri atxikia dela bermatzen duelarik.

García Canclín funtsezko bi gaiei erreparatzen die: 1. Herrikoa dena ez da jadanik tradizioen azalpen erromantiko gisa ulertzen. 2. Tradizioen babes hutsa ez da beti herriaren baliabiderik onena erreproduzitzeko eta biziraupen egoera bat birsortzeko. Hala eta

guztiz ere, García Canclini, tradizionala denarentzat, bilakatzea edo berregokitzea eta ordena sinboliko modernoekin hartu-emanak izatea ez dela arriskua dio –hau da, kulturala dena ekonomikoarekin

inbrikatu izanagatik hibridatzea– bai ordea, berregokitze logika horretatik baztertua izatea.

Hibridazioaren kontzeptua, García Cancliniaren arabera, herrikoa dena modernitatearen hartu-eman konplexuaren barnean egokitzeko dinamika bezala ulertzen da. Honi «berraldatze kulturala» deitzen dio (García Canclini, 1993): prozesu honen bidez, herri-kulturek, desagertu beharrean, forma berriak hartzen dituzte, beraien ekoizpena zirkuitu kapitalista berrian parte hartzen duen ondasun kultural bilakaturik. Tradizionala dena tradizional-moderno bihurtzen da eta praktika hibrido berriak azpi-sistema sinboliko desberdinen baterako existentzia dela eta sortzen dira. Horrela, logika ekonomiko, sozial eta kultural honen barne, hibridazio kulturalak ekoizpen sinbolikoaren ordena guztiei eragiten die: hibridazioak modernoa denaren eta tradizionala denaren arteko «kontraesanak» bateratzen ditu.

Hala ere, Cornejo Polarek dioen bezala, García Cancliniaren hibridotasunaren teoria ez dago kulturarekin soilik lotuta, historian ere murgilduta dago, nahiz eta honek arazoak planteatzen dituen. Hibridotasuna adierazteko gizarte latinoamerikarraren maila altuen adibideak erabiltzen dira («referirse preferentemente a ciertos estratos [los altos] de la sociedad latinoamericana» (Cornejo Polar, 1997: 342) gizarte guztia errepresentatzeko orduan, García Canclini gizarte latinoamerikarran dauden desberdintasun gero eta handiagoak gutxietsi egiten ditu. Denek ez baitute hibridotasuna maila berean eta askatasun berearekin praktikatzeko. Nahiz eta García Canclini kontzeptuak izaera gatazkatsua duela nabarmendu, hibridotasunak, aitzitik, elementu kultural anitzen konbinazio harmoniatsua, ia naturala, iradokitzen du, eta honela, akademia iparramerikarra gutxienez, interes materialekin lotutako gatazkez ondo xahututa dagoen multikulturalismo ofizialista bilaka daiteke. Cornejo Polarek proposatutako heterogeneotasuna, aldiz, zera da, «un concepto firmemente anclado en la sociedad y en la historia, tanto como en la cultura» (Bueno, 1996: 22), latinoamerikar gizarteetako desberdintasunetatik eta gizarte-banaketatik abiatzen da, eta zentzugabea da hauek argi ulertzen ez badira. Osotasun kontraesankorraren kontzeptua, baita ere Antonio Cornejo Polarena, honakoa egitea ahalbidetzen du «no sólo destacar –o celebrar– las diferencias, sino descubrir que muchas de ellas encubren desigualdades, injusticia, marginación, explotación» (García-Bedoya, 1998: 85-86). Nahiz eta Cornejo Polarek transkulturazioaren kontzeptua «la cobertura más sofisticada de la



categoría de mestizaje» (*ibidem*: 341) kontsideratzen duen, Ortizek proposatutako eta Ramak literatura latinoamerikarrera egokitutako kontzeptu honek, harreman-eremu kolonialen eta neokolonialen ezaugarri diren botere-harreman asimetrikoekin zerikusia du baita ere. Hiru kontzeptu osagarri hauek –heterogenotasuna, osotasun kontraesankorra eta transkulturazioa – mendeko taldeek beraien burua antolatzen duten beharra nabarmentzen dute beraien identitate kultural eta interes materialen arabera, desberdintasunari eta subordinazioari taldean aurre egiteko.

Antonio Cornejo Polaren heterogenotasunari buruzko ikuspegia 1977an hasi zen azaltzen «El indigenismo y las literaturas heterogéneas. Su doble estatuto sociocultural» testuarekin. Cornejok literatura homogenea idazleek ekoiztu eta honen maila sozial berekoak diren irakurleek irakurtzen duten literaturari deitzen dio. «La producción literaria circula, entonces, dentro de un solo espacio social y cobra un muy alto grado de homogeneidad: es, podría decirse, una sociedad que se habla a sí misma» (Cornejo, 1977: 12). Kasu honetakoak dira autore hauen narratibak: Salazar Bondy, Ribeyro eta Zavaleta, Perun eta Donoso eta Edwards, Txilen. Literatura heterogeneoak, bere ekoizpen prozesuaren ezaugarri soziokulturalen bikoiztasunaz bereizten dira: «se trata, en síntesis, de un proceso que tiene, por lo menos, un elemento que no coincide con la filiación de los otros y crea, necesariamente, una zona de ambigüedad y de conflicto» (*idem*). Konkistaren kronikak, poesia melgariarra, literatura gautxoa eta negroidea eta narratiba erreal-fantastikoa, literatura heterogeneoaren adibide desberdinak izango lirake. Ondoren, kritikari perutarrek yaraví melgariarraren eta indigenismoaren kasuak xehetasunez aztertu zituen.

Bere ondorengo lanetan, autore honek «osotasuna» eta «sistema» (edo hobe esanda «sistemak») kategoriak gehitu zituen. 1982ko «La literatura peruana: totalidad contradictoria» izeneko bere hitzaldian (1983an argitaratua), lehenengoa aurkeztu zuen. Bere iritziz, Perun ez dago literatura bakarra, beraien artean kontraesankorrak diren literatura anitzak baizik: espainieraz idatzitako literatura hegemonikoa, herri-literaturak eta literatura indigenak. Osotasunaren kategoria honek, literatura hauek bereizi eta beraien espezifikotasunean ulertzea ahalbidetzen du. Bestela esanda: historiak, hemen, literatura perutarren faktore totalizatzaile gisa jarduten du. Bestaldetik, Cornejoren ustez osotasunaren teoriak beste dohain bat zeukan: prozesu literarioa Peruko prozesu historiko-sozialean barneratzea ahalbidetzen zuen, honetaz kanpo ulergaitza suertatzen baitzen.

Sistemaren (edo sistemen) kontzeptua autorearen azalpenetan agertu zen 1989an. Urte hartan, Cornejok *La formación de la tradición literaria en el Perú* liburua eta «Los sistemas literarios



---

como categorías históricas. Elementos para una discusión» txostena argitaratu zituen. Liburuan Peruko tradizio literarioa nola sortu zen azaldu zuen: Berarekiko hiru irudi hegemoniko sortu ziren, kostunbristak, Palmarena eta L.A. Sánchezena. Hauen aurka, kritikariaren iritziz, Mariáteguiren irudian oinarrituz, hiru sistema daudela dio. Bere txostenean, zeina bere hitzetan eztabaida latinoamerikarrentzat proposatua dagoen («para una discusión latinoamericana»), bere ondorioak azaltzen ditu positibismoaren eskema sekuentzial sinplifikatzaile eta engainakorra eta eskema pluralista txiroatzailea arbuatuz. Honen ordez, Latinoamerikan literatura bakarra ez dagoela dio; subjektu, denbora eta espazio desberdinak dituzten benetako sistema literarioak baizik, eta honen ondorioz beraien artean harreman kontraesankorraz azaltzen dira.

Cornejok berriro heterogeneotasunari buruzko bere ideiak 1994ko bere *Ensayo sobre la heterogeneidad socio-cultural en las literaturas andinas* liburuan erabili zituen. Obra honen sarreran, heterogeneotasunaren kontzeptua berriro nabarmentzen du, baina bere mugak aurkitu dituela dio: hasiera batean, kontzeptu hau bi prozesu sozio-kultural edo gehiago gatazkatsuki nahasten zireneko literaturen ekoizpen prozesuen berri emateko erabili zuen. Baina geroago heterogeneotasuna prozesu horien instantzia garrantzitsuenen kanpoko ezarpenetan gertatzen dela (igorlea/diskurtsoa-testua/erreferentea/hartzailea, etab.), ulertu zuen eta horregatik horiek sakabanatu, ezegonkor eta kontraesankor bilakatzen ziren. Ondorioz, bere liburua hiru muin problematikoetan oinarritu zuen: diskurtsoa, subjektua eta irudikapena. Diskurtsoari dagokionez, denbora desberdinetan jarduten duela dio: mito aurrehispanikoaren kasua da hau; ebanjelizazio kolonialaren sermoi-bilduma eta proposamen abangoardista. Bere ustetan, zailtasun honi aurre egiteko sinkronia kontatu behar da, nahiz eta nahiko problematiko iruditu. Subjektuari dagokionez, mundu modernoan hura indartsu bezala azaltzea, bere identitateari buruz ziurra eta boterearekin lotuta azaltzea ohikoa da, baina beste esparru kulturaletan beste errealitate historiko-kulturalez elikatzen diren subjektuak aurkitu ditzakegu: subjektu heterogeneoa. Azkenik, banakako subjektua edo subjektu kolektiboa munduarekiko harremanarekin eratzen da, baina kritikariaren ustez, mimesia ez da errealitatearen irudikapenaren funtzioa soilik.

Cornejo Polaren teoriak onarpen ia orokorra izan dute.«Sistema» eta «osotasuna» bezalako terminoen argitasun falta izan da jarri zaion eragozpen bakarra. Gaur egun ezin dugu kontzeptu hauen formulazioaren azpian dagoen eraketa ukatu. Autore perutarren heldze kritikoarentzat, funtsezkoa izan zen berarengan hainbat kritikari literario latinoamerikarrek izandako eragina, hala nola, Roberto Fernández Retamar, Ángel Rama, Nelson Osorio eta bereziki

---

Alejandro Losada, azken honek Cornejorekin harreman estua izan zuen Perun 1971 eta 1976 bitartean. Losadaren laguntzaz, kritikari perutarrek Georg Lukacs eta Lucien Goldmann bezalako kritikari marxistei buruz bere ezagutza sakondu zuen. Geroago Antônio Cândidok eragin handia izan zuen berarengan. Baina bereziki José Carlos Mariáteguiren ideia kritikoei buruzko Cornejok egondako gogoeta izan zen garrantzitsua.

Hemen transkulturazioaren eta heterogeneotasunaren kontzeptuak, zenbait autorek kontrako kontzeptuak direla uste badute ere, bata bestearen osagarri direla argitzea komeni da. Honela, heterogeneotasunaren kontzeptua zabalagoa da eta transkulturazioarenak dinamika modu bat ezartzen du heterogeneotasunaren egoeraren barnean - beste dinamika bat akulturazioarena deritzona da -. Izan ere, kulturen heterogeneotasun egoera dela eta, kultura bat beste baten menpe egon daiteke eta pasiboki bere elementuak jaso (dinamika akulturatzailea deritzona), edo elementu horiek sortzaile bezala bereganatu, bere oinarrietatik abiatuta (dinamika transkulturatzailearen kasua). Egiatan Cornejoren azalpenean ez dago gai honi dagokion proposamenik, beraz kategoriaren osaketak harrera ona izan dezake. Ramak eta Cornejok egindako kontzeptuak bata bestearen osagarri dira beste zentzu batean ere. Kritikari uruguaitarrak kritikak jaso ditu, kulturen arteko gurutzatzeak prozesu akulturatzaile edo transkulturatzaile batean amaitzen denez, azken emaitza beti nolabaiteko sintesia baita. Bestalde, Cornejok kulturen arteko gurutzatzeak kasu askotan osotasun gatazkatsu edo, gehien bat, kontraesankorra ekartzen duela nabarmendu zuen. Baina errealitatea ez da aukera hauetako bakar baten bidez erabakitzen; batzuetan bata gertatzen da eta besteetan bestea. Literaturan, sintesi burutsua du, José María Arguedasek idatzitako eta askotan ikertuta izan den *Los ríos profundos* nobela (1958) eta Gamaliel Churataren *El Pez de Oro* liburu (1957) gatazkatsua.

Raúl Buenok bi kontzeptuon osagarritasuna defendatzen du. Kritikari honentzat, herri latinoamerikarrak historikoki heterogeneoak dira, hau da, oinarritzkoa edo primarioa den heterogeneotasuna dute. Honen gainean beste diskurtsoa edo bigarren mailakoa eratuko litzateke: «en la heterogeneidad cultural todo signo referente a la otra cultura entraña homológicamente la heterogeneidad de base. Es, por naturaleza, un signo heterogéneo» (1996: 31). Transkulturazioa ez da berez errealitate latinoamerikarraren kategoria deskribatzailea, «como la heterogeneidad o –parcialmente– el mestizaje, sino una parte destacada de las dinámicas de la heterogeneidad» (*idem*). Osagai kulturalak kultura batetik bestera transmititzea izango litzateke. Mota desberdinetakoa izan daiteke: hautemangarria, transmititzen dena objektuak, teknologia edo ohiturak direnean;

transkulturazio «filosofikoa», transmititutakoa balioak, ikusmoldeak eta kategoriak badira; eta transkulturazio semiotikoa, transmititutakoa ikurrak, erreferenteak eta diskurtsoak direnean.

Aldi berean, hibridotasuna kulturen elkarketa eta aldiberekotasun gisa eta aldaera etniko, kultural eta erlijioso gisa ulertua, ez da oraindik daukan potentzial teoriko guztiarekin erabili. Hibridotasunaren kontzeptuaren barne, historian zehar eta gaur egun ere eman diren azalpen literario eta kultural desberdinak ikertu daitezke, hala nola, nortasuna eta desberdintasuna osatzen duten mekanismoak, egungo teoria literarioan subjektuaren eta generoaren kontzeptuaren eraikuntza, idazmena eta hizketaren arteko lotura, genero literario eta testual berriak, eta abar.

Mestizajea arrazen arteko harremanaren arazotik abiatzen da, eta honi buruz ere Ortizek egin zuen hausnarketa goiztiarra:

En la gran tragedia histórica de todas las razas subyugadas [...], uno de los sufrimientos más crueles ha tenido que ser el de tener con frecuencia que negarse a sí mismas para poder pasar y sobrevivir, el de esconder el alma en lo más recóndito de una caverna de conducta hecha de forzadas hipocresías, de defensivos mimetismos, de dolorosísimas renunciaciones. En Cuba, los negros tuvieron que abstenerse, aceptando, a la vez de grado y de fuerza, la posición distinta que el sojuzgamiento les señaló en la estratificación social que los explotaba. Pero el mestizo sufrió más, sufrió la presión centrífuga de dos mundos, del futuro que aún no lo aceptaba y del pasado que ya no lo reconocía. Y el alma mulata padeció la vida de lo inadaptado. O tenía que manifestarse ante el mundo como un negro, sin serlo; o como un blanco, sin serlo tampoco. En cualquiera de las dos posiciones, su expresión emocional hallaba obstáculos [...], uno de los obstáculos más resistentes [...] ha debido ser la resistencia despreciativa del blanco, debida en parte a los ancestrales prejuicios étnicos, reforzados por los privilegios económicos [...] (Ortiz, 1940: 231).

Latinoamerikako eskualde bakoitzeko transkulturazio eta mestizajeen berezitasunekin lotuta, Ortizek, Las Casasek Indietako suntsipena edo «destrucción de las Indias» deiturikoa hartzen du oinarritzat. Hau, kultura kontinental aurre-letradunak eta indoantillarrak, XVI. mendeko maila altuko kultura europarrarekin izandako eragina edo talka bortitzaren emaitza izan zen. 20ko hamarkadan hasitako ikerlanetan, mestizaje kulturalaren tesia zehaztu egin zen eta Ortizek «bizimodu txarra»ri egotzi zion lekua eta esanahia aldatu zuen, ezagutza hau bere lanaren garapenaren azken etapetan ere mantendu zuelarik. Ortizentzat aldaketa hau agerian geratzen da jende marjinala mestizaje kulturalaren eta transkulturazioaren garraio bezala agertzen hasten baita. «Bizimodu txarra» orduan, gaizkile-fenomenoa baino ez zela pentsatzeari utzi egin zion (J. Le Riverend) eta Ortizentzat, gizarte kubatarrean integrazio modu bat, edo hobe esanda barneratze modu bat izatera pasa zen, arrazoi

---

desberdinengatik desdoitze soziala jasateko bidean dauden balio kulturalak dituzten subjektuen aldetik. Hauek metropoliaren eta koloniaren arteko lehenengo hartu-eman kulturalen lehen kate-maila ziren. Mestizaje kulturala transkulturazioaren prozesuaren funtsezko fase edo osagaia da. *Los negros curros* liburuan (1986), fase historikoak desberdinu eta ebolutiboetan interpretatzen da, fenomeno berriak mailaka sortzeko bidean. Bertan mestizaje mailen ideia agertzen da, aipatutako prozesuaren historikotasunerantz bideratuz, kurro beltza gizaki mota bezalako goraberen atzera begirako batean: kurreriaren iturri ziren Sevillako bere arbasoetatik hasi, kurro beltzaren jatorria babesten duen Kubako zurien bizimodu txarretik pasa, mota horren desagertzea arte.

Cornejo Polaren arabera mestizajea, latinoamerikarra dena definitzen duen kategoria teoriko bihurtzen da: jendea, literatura, kultura; hori ikerlan literarioetan azaldu beharko litzateke, herrialde hauetan ekoiztutako testu gehienek funtsezko oinarria baita. Esan beharrik ez dago mestizajearen ideiak formulazio desberdinak izan dituela; Garcilaso Inkarenatik hasi eta Fernández Retamarena arte, Vasconcelosenetik pasata. Nagusitzen den ideia zera da, mestizaje kulturala gertatzen dela transkulturazioko elementuak, herritar arruntarentzat, bere jatorriko erreferentzia historikoak galtzen dituenean (europarra, india, afrikarra dena, adibidez), eta hautabide kultural gisa azaltzen den eta nahiko uniforme den sistema batean berrantolatzen direnean. Honen ondorioz, errealitate historiko zehatz baten aldi transkulturean zehar (transkulturazioaren diskurtsoetan bezala), jatorrizko elementuek beraien lotura heterogeneoa mantentzen dute (herrikoa, indigena, barrukoa... alde batetik; hispanikoa, metropolitarra, abangoardista..., bestetik). Hauek guztiek batera jarduten dute, beraien heterogeneotasunaz ia jabetzen direlarik, ikuspegi kulturala dibertsifikatzea baino askoz ere gehiago lortu nahi duten lotura berrietan: iraupen kulturalaren irteerak eta menderatzearen aurkako ihesbideak negoziatzea, honela mestizaje kulturalaren aldian jatorri heterogeneoa duten elementuen arteko desberdintasunak desagiteko, sistema bateratzeko eta lotura kultural desberdina eta berri sortzeko. Lotura egitura honek berak, bestalde, akulturazioa (JM Arguedasek azaldutako zentzuan) eta kultura-aniztasuna, transkulturazio eta mestizajearen gai eta kategoria desberdinak direla argiago ikusteko balio du.

Hitz batez, Mabel Morañak laburtu duen bezala (1998: 234):

---

Desde la década de los años sesenta, los latinoamericanos asumimos que el concepto de hibridez captaba el rasgo más saliente de la experiencia cotidiana y de la producción cultural en formaciones sociales que desde la colonia a nuestros días han debido negociar su existencia a partir del entrecruzamiento de proyectos y agendas que definíamos en términos de lo propio y lo foráneo, aunque los intercambios entre uno y otro nivel implicaran la comprensión de complejos procesos de representación simbólica y la implementación de estrategias interpretativas que nos permitían, como hace mucho advirtiera Althusser, complementar nuestra ignorancia con el trasiego interdisciplinario. La noción de hibridez era utilizada de manera «plana», como sinónimo de sincretismo, cruce o intercambio cultural, y como forma de contrarrestar la ideología colonialista que desde el Descubrimiento aplicara, con pocas variaciones, el principio de «un dios, un rey, una lengua», como fórmula de sojuzgamiento político y homogeneización cultural.

Arguedasi dagokionez baita ere, Antonio Cornejo Polarek bere teorizazioak egungo ikerlan literario eta kulturalen nozio garrantzitsuenetariko bati buruz hasi zituen: Heterogeneotasuna, zehazki indigena, eta hedatuz, latinoamerikarra. Honen garapena bere funtsezko liburuarekin burutu zen, lehen aipatu bezala, *Escribir en el aire. Ensayo sobre la heterogeneidad socio-cultural en las culturas andinas* (1994). Aldi kolonialean hasten den ikuspegi bat eratuz, Cajamarcan Atahualpa inkaren eta Vicente Valverderen arteko «elkarrizketa» batekin hasi eta menpekotasunari buruzko eztabaida modernoago batzuetaraino, Cornejok bere eztabaida hiru arazoetan oinarritzen du: diskurtsoa, subjektua eta irudikapena, honela ondorengoa nabarmenduz: «la guerra simbólica que tiene su correspondencia étnico-social en los mundos indígena y criollo» (Montaldo, 1999: 397). Era honetan, heterogeneotasunaren hitzaren/ nozioaren eduki sinbolikoari esanahi berria ematea ahalbidetzen du, etnia eta arrazarekin zerikusia duten azalpenengandik urrunduz, eta benetako hartu-eman soziokulturaletara itxuraz soilik irekita dauden zenbait hurbilketen barne dauden ezkutuko indarrak azaleratuz. Geroago kasu hau ondorengoa dela dio: «la idea de transculturación [que] se ha convertido cada vez más en la cobertura más sofisticada de la categoría de mestizaje» (Cornejo, 1977:19). Azkenean, desberdina/besteia eta kontraesankorra dena onartu beharra dagoela, berez amerikarra den eginbehar bezala, aldarrikatu zuen.

quiero escapar del legado romántico –o, más genéricamente, moderno–, que nos exige ser lo que no somos: sujetos fuertes, sólidos y estables, capaces de configurar un yo que siempre es el mismo, para explorar –no sin temor– un horizonte en el que el sujeto renuncia al imantado poder que recoge en su seno –para desactivarlas– todas las disidencias y anomalías, y que –en cambio– se reconoce no en uno sino en varios rostros, inclusive en transformismos más agudos (Cornejo, 1994b: 20).

Antonio Cornejori ere, subjektu migratzailearen edo migrazioaren kategoriaren azalpena zor diogu; hau bereziki garrantzitsua da

---

latinoamerikarrentzat, izan ere, hauek emigrazioa gutxi gorabehera halabeharrez gertatzen den fenomeno bezala ikusteari utzi diote, eta fenomeno orokor bezala sentitzen dute orain, ez soilik izaera politikoa duten atzerriratzeak markatutako garaia bezala, batez ere edozein motatako arrazoiek eragindako jendetzaren mugimendu bezala baizik. 1996an Cornejok «Una heterogeneidad no dialéctica: sujeto y discurso migrantes en el Perú moderno» argitaratu zuen. Bertan, Perun landatik hirira gertatzen ari den emigrazio orokortuari buruz jarduten hasten da, honek ekarritako aldaketa sozialekin batera - urte bat lehenago fenomeno hau ikertu zuen Arguedasen literaturan, ikusi Cornejo (1995) -. Literaturan Arguedasetik, Vargas Llosa arte azaltzen da, eta honen arrazoa kritikariak azaltzen dituen honako baldintzapenak dira:

Mi hipótesis primaria tiene que ver con el supuesto que el discurso migrante es radicalmente descentrado, en cuanto se construye alrededor de varios ejes asimétricos, de alguna manera incompatibles y contradictorios de un modo no dialéctico. Acoge no menos de dos experiencias de vida que la migración, contra lo que supone la categoría de mestizaje, y en cierto sentido en el concepto de transculturación, no intenta sintetizar en un espacio de resolución armónica; imagino – al contrario– que el allá y el aquí, que son también el ayer y el hoy, refuerzan su aptitud enunciativa y pueden tramar narrativas bifrontes y –hasta si se quiere, exagerando las cosas– esquizofrénicas. Contra ciertas tendencias que quieren ver la en la migración la celebración casi apoteósica de la desterritorialización (García Canclini, 1990 [se refiere a Culturas híbridas]), considero que el desplazamiento migratorio duplica (o más) el territorio del sujeto y le ofrece o lo condena a hablar desde más de un lugar. Es un discurso doble o múltiplemente situado (Cornejo, 1996: 41).

Urte bat lehenago, Ángel Ramaren «La riesgosa navegación del escritor exiliado» aztertu zuen, bertan fenomenoaren dimentsioak azaltzen zituen:

El exilio no es una invención reciente en la América Latina: toda su historia independiente de siglo y medio ha estado acompañada por obligados desplazamientos del equipo político e intelectual de los diversos países, que encontró en Estados Unidos y en Europa, temporaria acogida mientras en sus patrias se hacía imposible su tarea (Rama, 1978: 235).

Ramak bai barruko bai kanpoko migrazioak eta faktore politiko eta ekonomikoak azaltzen ditu, azkenik honakoa sortzeko: «un verdadero pueblo de la diáspora» (*ibidem.*: 236), maila sozial desberdinetatik datozen pertsonen osatua: langileak, nekazariak, eskulangileak... Idazleen esperientziari buruz, *Aves de paso: autores latinoamericanos entre exilio y transculturación* (1970-2002) (2005) liburukia baino ez da eskaintzen, Mertz-Baumgarten eta Pfeiffer-ek argitaratua. Bertan, lehenik eta behin, atzerriratzearen existentziaren

ideia garrantzitsu eta orokortu batekin hasten da eta, bigarrenik, atzerriratzearen esperientziak eta transkulturazioaren esperientziak errealitate berdinen pertzepzio desberdinak izatearen posibilitatea aztertzen da. Bistakoa da, beraz, XXI. mendean teoria honek daukan garrantzia eta potentziala.

Azkenik, teoria kulturalari eta literarioari egindako ekarpen latinoamerikar hauek ezin dira aipatu gabe utzi, batez ere heterogeneotasunaren eta osotasun kontraesankorraren kontzeptuak direla, edota transkulturazioarenak eta hibridotasunarenak, desberdintasunak eta botere-harreman ez orekatuak, ia kolonialak hobeki azaltzen dituztenak. Hauek, aldaketa kulturalak, egun globalizazioa (edo mundializazioa) deituriko hedapen kapitalistaren fase neoliberalak baldintzatzen dute. Horregatik kontuan eduki beharke genituzke, egoera historiko zehatz honetan, izateari, literaturaren

funtzioari eta ikerlan literarioei buruz eztabaidatzen duten egungo teorialarien atze-oihala, askotan euskarria, baita.



## Bibliografía

- ARGUEDAS, J. M<sup>a</sup> (2004): *Los ríos profundos*, Buenos Aires: Losada, Madrid: Cátedra
- BUENO, R. (1996): «Sobre la heterogeneidad literaria y cultural de América Latina» en Mazzotti, J. A.; y Cevallos, J. (coords.), *Asedios a la heterogeneidad cultural*. Libro de homenaje a Antonio Cornejo Polar, Filadelfia: Asociación Internacional de Peruanistas, 21-36
- CHURATA, A. (1957): *Pez de oro*, La Paz: Editorial Canata
- CORNEJO POLAR, A. (1977): «El indigenismo y las literaturas heterogéneas: su doble estatuto sociocultural», *Revista de Crítica Literaria Latinoamericana*, 7-21
- CORNEJO POLAR, A. (1982): *Sobre literatura y crítica literaria latinoamericanas*, Caracas: Universidad Central de Venezuela
- CORNEJO POLAR, A. (1983): «La literatura peruana: totalidad contradictoria», *Revista de Crítica Literaria Latinoamericana*, 18, 37-50
- CORNEJO POLAR, A. (1989a): *La formación de la tradición literaria en el Perú*, Lima: CEP
- CORNEJO POLAR, A. (1989b): «Los sistemas literarios como categorías históricas. Elementos para una discusión latinoamericana», *Revista de Crítica Literaria Latinoamericana*, 29, 19-24
- CORNEJO POLAR, A. (1989c): «El comienzo de la heterogeneidad en las literaturas andinas: voz y letra en el “diálogo” de Cajamarca», *Revista de Crítica Literaria Latinoamericana*, 33, 155-208
- CORNEJO POLAR, A. (1994a): «Mestizaje, transculturación, heterogeneidad», *Revista de Crítica Literaria Latinoamericana*, 40, 368-371
- CORNEJO POLAR, A. (1994b): *Escribir en el aire. Ensayo sobre la heterogeneidad sociocultural en las literaturas andinas*, Lima: Horizonte
- CORNEJO POLAR, A. (1995): «Condición migrante e intertextualidad multicultural: el caso de Arguedas», *Revista de Crítica Literaria Latinoamericana*, 42, 101-109
- CORNEJO POLAR, A. (1996): «Una heterogeneidad no dialéctica: sujeto y discurso migrante en el Perú Moderno», *Revista Iberoamericana*, 176-177, vol. LXII, 837-844
- CORNEJO POLAR, A. (1997): «Mestizaje e hibridez: los riesgos de las metáforas», *Revista Iberoamericana*, 180, 341-344
- GARCÍA-BEDOYA, C. (1998): «Transculturación, heterogeneidad, hibridez: algunas reflexiones» en Escadajillo, T. G. (ed.), *Perfil y entraña de Antonio Cornejo Polar*, Lima: Amaru Editores, 79-87
- GARCÍA CANCLINI, N. (1989): *Culturas híbridas. Estrategias para entrar y salir de la modernidad*, México: Grijalbo
- GARCÍA CANCLINI, N. (1993): «Cultural Reconversion» en Yúdice, G., et. al. (ed.), *On Edge: the Crisis of Contemporary Latin American Culture*, Minneapolis: University of Minnesota Press
- MALINOWSKI, B. (1940): «Introducción» en Ortiz, F., *Contrapunteo cubano del tabaco y el azúcar (Advertencia de sus contrastes agrarios, económicos, históricos y sociales, su etnografía y su transculturación)*, La Habana: Universidad Central de las Villas
- MONTALDO, G. (1999): *Ficciones culturales y fábulas de identidad en América Latina*, Rosario: Beatriz Viterbo Editora
- MORAÑA, M. (1998): «El boom del subalterno» en Castro-Gómez, S. y Mendieta, E. (coords.), *Teorías sin disciplina. Latinoamericanismo, poscolonialidad y globalización en debate*. México: University of San Francisco y Miguel Ángel Porrúa, 233-244, [03/02/2007] <<http://ensayo.rom.uga.edu/critica/teoria.castro/>>
- MORAÑA, M. (ed.) (1996): *Crítica cultural y teoría literaria latinoamericana*, *Revista Iberoamericana*, LXII, 176-177
- ORTIZ, F. (1940): *Contrapunteo cubano del tabaco y el azúcar (Advertencia de sus contrastes*

- agrarios, económicos, históricos y sociales, su etnografía y su transculturación*), La Habana: Universidad Central de las Villas
- ORTIZ, F. (1986): *Los negros curros*, La Habana: Ed. de Ciencias Sociales
- PULIDO TIRADO, G. (2009): *Caleidoscopio de teorías. El giro culturalista de los estudios literarios latinoamericanos*, Vigo: Editorial Academia del Hispanismo
- RAMA, Á. (1974): «Los procesos de transculturación en la narrativa latinoamericana», *Revista de Literatura Iberoamericana*, 5, 7-38
- RAMA, Á. (1978): «La riesgosa navegación del escritor exiliado» en *La riesgosa navegación del escritor exiliado*, Montevideo: Arca, 235-250
- RAMA, Á. (1982): *Transculturación narrativa en América Latina*, México: Siglo XXI.
- SCHMIDT, F. (1995): «¿Literaturas heterogéneas o literatura de la transculturación?», *Nuevo Texto Crítico*, VII, 14-15
- SCHWARTZMANN, F. (1950-1953): *El sentimiento de lo humano en América: Ensayo de antropología filosófica*, Santiago de Chile: Facultad de Filosofía y Educación, Instituto de Investigaciones Histórico-Culturales
- VASCONCELOS, J. (1966): *La raza cósmica. Misión de la raza iberoamericana*, Madrid: Aguilar
- VV.AA. (2005): *Aves de paso: autores latinoamericanos entre exilio y transculturación (1970-2002)*, Mertz-Baumgartner, B.; y Pfeiffer; E. (eds.), Madrid-Frankfurt: Iberoamericana/Vervuert